

XIV. edizioko sariak banatu dira Ibarrran

PRENTSA OHARRA

Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarrrako Udalarekin elkarlanean antolatu duen Ibarra-Galtzakomik komiki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia izan da abenduaren 16an, Ibarrrako Kultur Etxeko areto nagusian. 15. aldiz antolatu da euskarazko komikigintza sustatu asmoa duen lehiaketa eta **aurten 285 izan dira bertara aurkeztu diren komikiak.**

Euskarazko komikigintza eta sormena sustatzea du helburu Ibarra-Galtzakomik lehiaketak. Euskara hutsean Euskal Herrian antolatzen den bakarrak, eta adierazpide artistiko honetan bidea egin nahi duenari aukera bat eskaintzeko aproposa da antolatzaileen ustez. Euskal Herri osoan jasotzen dira lanak urtero, eta aukera paregabea izaten da euskarazko istorioak komiki bihurtzen dituzten artista gazte eta helduentzat.

Aurtengo epaimahaia, Yurre Ugarte idazleak, Joseba Larratxe Josevisky arkitekto eta komikigileak eta Ainara Azpiazu Axi ilustratzaileak osatu dute. Ibarra-Galtzakomik komiki lehiaketa honakoek babesten dute: Ibarrrako udala, Xabiroi aldizkaria, Mahala, Tamayo denda, Ibarrrako merkatarien elkarteak, Danon Txokoa eta Eguzkilore tabernak, Babel liburu denda, Danon artean denda, Irribarra, Erein argitaletxea eta Elkar megadenda.

Gorka Otaegi aurkezlearen gidaritzapean banatu dira epaimahaiak autatutako 15 sariak. Sari hauez gain gainera, sarituak izan ez diren parte hartzaile guztien artean Mahala baserriko produktuez osatutako bi saski ere zozketatu dira eta Anitz Arandegi Urbietan eta Alain Urkola Carrillo

izan dira irabazleak. Lehiaketara aurkeztutako **komiki guztiak ikusgai egongo dira abenduaren 16tik 30era, Ibarrako Kultur Etxeko areto nagusian.**

Hona hemen kategoria bakoitzeko lan irabazleak eta sariak:

9 URTERA ARTE

1. SARIA: 'Iribarreko artista' Irene Amonariz Larraza.

Saria: Opari txeketa + komiki bilduma.

2. SARIA: 'Lagunak' Iraide Zufiria Saralegi eta Kattalin Lasa Gozategi.

Saria: Marrazketarako materiala + komiki bilduma.

AIPAMENA: 'Animalien makina Ibarra' Peru Rodriguez Agirre.

Saria: Komiki bilduma.

IBARRAKO ONENA: 'Irri eta barra' Ekain Gabellanes Calvo, Urko Lizaso Arrospide eta Aimar Vieira Mondragon.

Saria: Ibarrako merkatarien oparia + komiki bilduma.

**Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.*

10-12 URTE BITARTE

1. SARIA: 'Hortz bat, irribar bat' Nora Ansorena Irizar.

Saria: Opari txeketa + komiki bilduma.

2. SARIA: 'Aldaketen eboluzioa' Lujan Diez Corres.

Saria: Marrazketarako materiala + komiki bilduma.

AIPAMENA: 'Iribarraren bila' Libe Osorio Arbillaga.

Saria: Komiki bilduma.

IBARRAKO ONENA: 'Kilometrotako iratxoak' Maddi Muxika Plaza.

Saria: Ibarako merkatarien oparia + komiki bilduma.

**Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.*

13-16 URTE BITARTE

1. SARIA: 'Iribarra' Aitor Aristi Imaz.

Saria: 200€ + komiki bilduma.

2. SARIA: 'Zoriontasunaren handikotea' Paula Ansorena Irizar.

Saria: 100€ + komiki bilduma.

AIPAMENA: 'Zorigaiztoko kontrola' Anyhelina Suyapa Rico Rui.

Saria: Komiki bilduma.

IBARRAKO ONENA: 'Kilometroak modu desberdin batean' Naroa Uranga del Olmo Etxeberria.

Saria: Ibarako merkatarien oparia + komiki bilduma.

**Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.*

17 URTETIK GORA

1. SARIA: 'Abenturak Iribarran' Javier Navarro.

Saria: 700€ + Danon txokoa bi lagunentzako afaria.

2. SARIA: 'Bat, bi eta hiru...patata!' Libe Carballo Aranburu.

Saria: 300€ + Eguzki Lore tabernan bi lagunentzako afaria.

**Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.*